

## Botilako ardoa

*Euskaldunon Egunkaria*, 1996-10-20: 3.

Botilakoa erdizka dagoenean bakoitzak zein neurritan ikusten duen esateko ardoarekin zerikusia duen adierazpide bat erabiltzen dugu; hala geratu da esaera zaharrear: bakoitzak ondoen dagokion bere kasa ikusten duela. Bakoitzaren hau ez da neurketa zehatza, noski, pertsonaren aldartea ere erakusten du. Ez da propioki nahikeria bat edo kasketaldi hutsa ere, neurtzea zailago diren zentzu, kultura, eskarmentu eta gaiaren informazioa adierazten du, beste gauza askotan bezala. Euskara gaur dagoen egoeraz, esate baterako. Demagun botila ikusten ari direnak gaiaz ere afektiboki pareko direla, eta hala ere ez dute euskararen gaurko egoera nahitaez era berean ikusiko. Zilegizkoa den kezka hau sumatu diot Euskal Kulturaren Batzarreko (EKB) arduradun nagusiak egunkari honetan bertan agertu berria duen *Plangintza orokorraren premia* idazlan zehatzari: gaur instituzioak egiten ari direnaren arabera orain arte ahalegin on askotako ardoa sartu dela botilan, baina ikusten dizkiola hutsak eta premia larriak. Egia handia dena da euskararen arazoa bera dela berez zaila eta zorrotza, eta beharrezkoak dituela denon zaingo erneak. EGUNKARIA bere bitartekotzaren lana ari da egiten ahal duen finen, bistan da, eta hau ere ez da erraza.